

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

Zenbakia: 02/2015

Eguna: 2015/02/25

Ordua: 20:00

UDAL OHIKO OSOKO BILKURAREN AGIRIA**ALKATEA:**

Alvaro Villar Fernández.

ZINEGOTZIAK:

Yolanda Alkorta Gómez.

Asier Larrañaga Etxeberria.

Miren Itziar Aizpurua Antía.

Maria Carmen Arregi Agirre.

Francisco María Gabarain Gárate.

ETORRI IZAN EZ DUTENAK:

Asier Zamakola Ibaibarriaga.

IDAZKARI KONTUHARTZAILEA

Begoña Gorritxategi Osa.

Aizarnazabalen bi mila eta hamabosteko Otsailaren hogeita bostean, Aizarnazabalgo Udaletxeko Areto Nagusian, arratsaldeko zortziak direnean eta Apirilaren 2ko Erregimen Lokaleko Oinarriak Erregulatzen duen 7/1985 Legearen 46.2.c) artikulua agintzen duena kontutan hartuz, Alkateak, hasera ematen dio Udal Osoko Bilkura honi, aurrez konprobatuz, Korporazioko kideen gutxiengo kopurua eta Alkate eta Idazkaria bertan daudela.

1. Azkenengo Udal Osoko Bilkuraren agiriaren zirriborroa onestea hala badagokio.
2. Alkatearen Dekretuen berri ematea.
3. Ordainketa eta diru kontuak.
4. 2014ko Udal Aurrekontuaren 2 eta 3 kreditu aldaketa espedienteak.
5. Lauburu erabilera anitzeko gelak erabiltzeko kontratuak sinatzeko alkateari ahalmena ematea.
6. Uemak aurkezten duen MOZIOA EUSKARAREN ALDE.
7. Galdera eta eskeak.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

1. AZKENENGO UDAL OSOKO BILKURAREN AGIRIAREN ZIRRIBORROA
ONESTEA HALA BADAGOKIO.

Alkate Jaunak galdetzen die bertaratutako Jaun Andreei, ea 01/2015 zenbakia daraman 2014ko Urtarrilaren 28an burututako, Udal Osoko Bilkuren Agiria onartzeko, ados dauden, eta baietz esan ondoren, azkeneko udal osoko bilkuraren agiria onesten da aho batez.

2. ALKATEAREN DEKRETUEN BERRI EMATEA.

Alkateak eman dituen ondorengo Dekretuen berri eman zen:

Zenbakia	Edukia
75/2014	Arratoiak eta intsektuak hiltzeko zerbitzua TSArri esleitzea, Foru Kontratazioaren bidez egindako esleipen prozesuaren ondoren.
76/2014	Aizarnazabalgo Zehatz auzoko sarrera hobetzeko eraikitze egitasmoaren kostua gutxitu egin dela Gipuzkoako Foru Diputazioak 50.000 euro ordaindu dituelako.
77/2014	Ibilgailua erostearen esleipena.
05/2015	E-On Energía S.L.ri 2014ko 3 eta 4 hiruhileko likidazioa.
06/2015	Factor Energía S.A.ri, 2014ko 4 hiruhileko likidazioa.
07/2015	ENDESArri, 2014ko 3 eta 4 hiruhileko likidazioa.

3. ORDAINKETA ETA DIRU KONTUAK.

Ondorengo fakturak onartzea erabaki zen aho batez:

FAKTURAK		
Izena	Kontzeptua	€.
Egurki Aroztegia SL	Faktura 00012. Zehatz auzoko sarrera.	23.407,96
Egurki Aroztegia S.L.	Faktura 00011. Narbazta bidean konponketak.	2.398,22
UEMA.	2015eko kuota.	5.173,00

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

**4. 2014KO UDAL AURREKONTUAREN 2 ETA 3 KREDITU ALDAKETA
ESPEDIENTEAK.**

2014ko Udal aurrekontuaren 2º kreditu aldaketa espedientea.

Kontutan izanik, Alkate Dekretuz, 2014ko urriaren 30an, ondorengo hau onetsi zela:

Udal honen 2014ko Aurrekontuaren barnean kreditu gaikuntzaren bidez izapidetzen den kreditu aldaketarako espedientearen berri eman da.

Idazkari Kontu hartzaileak egindako txostena irakurri da, espedientea aplikagarria zaion araudiari egokitzen zaiola adieraziz eta, hortaz, bere txostena eginez.

Eztabaidatu ondoren botaziora jarri eta aho batez honako hau erabaki da:

Lehenik.- Kreditu gaikuntzen erregimenaren bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, 116.300 euroko zenbatekoaz, espedientearekin batera jasotako egoera orrian ageri den kontzeptu eta partiden xehetasun berarekin.

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoa denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondon Kontu hartzaile Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin gauzatzea.

2014ko Udal aurrekontuaren 3º kreditu aldaketa espedientea.

Ikusirik, 2014ko ekitaldiko aurrekontuaren 3º kreditu aldaketaren espedientea, aho batez, ondorengo erabaki hau hartzen da:

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

Lehenik.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea.

Bigarren.- Aurrekontuaren partidak honela geratuko dira kapituloka sailkaturik, gastuetan, diru sarrerak ez bai dira aldatu.

GASTOAK: Guztira diru kopurua 153.340,00 euro.

Hirugarrena: Aurrekontuaren aldaketa jendaurrean erakustea hamabost lan egunetako epean, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Udaleko Iragarkien oholean iragarkiak argitaratuz.

Laugarrena: Jendaurrean erakutsi ondoren, alegaziorik ez balego, aurrekontuaren aldaketa hau behin betiko onartutzat hartuko da beste onarpenik egin gabe.

5. LAUBURU ERABILERA ANITZEKO GELAK ERABILTZEKO KONTRATUAK SINATZEKO ALKATEARI AHALMENA EMATEA.

Gai ordenarekin jarraituz, Lorea Elustondo Erauskin andereak egindako eskaeraren berri eman zen, bertan eskatzen du Lauburu erabilera anitzeko guneko gela bat erabiltzeko baimena.

Gaia aztertu ondoren, zera erabaki zen aho batez.

LEHENA: Lorea Elustondo Erauskin Anderearekin hitzarmen bat sinatzea Lauburu erabili anitzeko guneko gela bat erabiltzeko.

BIGARRENA: Lauburu guneko gelak erabiltzen dituztenekin hitzarmenak berritzea, azkenak 2010ean sinatu bai ziren.

HIRUGARRENA: Alkatea den Alvaro Villar Fernández ahalmentzea hitzarmenak sinatzeko.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

6. UEMAK AURKEZTEN DUEN MOZIOA EUSKARAREN ALDE.

Alkateak, ondorengo MOZIOA irakurri zuen:

“Espainiako Gobernuaren ordezkaria udalen jardunean gauzatzen ari den esku-hartzeak bete-betean harrapatu gaitu UEMA eta bertako udalak. Kontratazioetako hizkuntza irizpideak, diru-laguntzetarako hizkuntza irizpideak, aktak euskaraz bidaltzea edota udalak euskalduntzeko adostutako hizkuntza irizpideak susmopean jarri dituzte. Bi udalek UEMAn, Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean sartzeko hartutako erabakiaren aurka ere jo du Espainiako Gobernuaren ordezkariak.

Horrela, udalen eguneroko jarduna eta udalok euskara sustatzeko egiten ari garen lana baldintzatzen dute. Administrazio publikoak hainbat zerbitzu erdara hutsean eskaintzen dituen bitartean, herritarren hizkuntza eskubideak errespetatzeko prestatuta gauden udalak dira susmopean jarri nahi izan dituztenak.

Egoera larria da. Euskararen ofizialtasuna bera ari dira zalantzan ipintzen. Teorian euskara zein gaztelania hizkuntza ofizialak dira Euskal Erkidego Autonomoan. Baina, praktikan euskarak, erdara erabili ezean, ez duela balio ofizialik esaten digute errekerimendu eta helegiteen bitartez.

Egoera honen aurrean Aizarnazabalgo Udalak adierazi nahi du:

- Aizarnazabalgo Udalak euskara sustatzeko egiten ari den ahalegina berretsi nahi du. Euskararen bidea beste eragile eta instituzioekin elkarlanean garatzeko konpromisoa adierazi nahi du.

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

- Gure herria berezia da hizkuntzaren ikuspegitik. Horregatik, udalerrri euskaldunak, euskararen arnas guneak indartzeko, politika eraginkorrak abian jartzen saiatuko gara; hizkuntza politika euskara sailetik harago eraman, eta euskararen arnas guneak duten garrantzia aintzat hartuta, politika orokorraren erdigunean kokatzen saiatuz.
- Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariak udalen jardunean eta bereziki euskara sustatzeko neurrien aurka izandako esku hartzea salatu nahi dugu. Espainiako Gobernuak EAEn duen ordezkariaren figura eta lana bertan behera uzteko eskatzen dugu.
- Eusko Jaurlaritzari eskatu nahi diogu euskara sustatzeko ahaleginean ari garen udalerrri euskaldunetako Udalak babestu ditzan.
- Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak deituta, euskaldunoi ezartzen zaizkigun oztopoak salatu eta euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko, otsailaren 28an, 17:30ean, Donostiako Gipuzkoa Plazatik abiatuta egingo den Manifestazioarekin bat egin nahi du Aizarnazabalgo Udalak. Herritarrei dei egin nahi diegu mobilizazioan parte hartzeko”

Botazioa egin ondoren, emaitza hau lortzen da: Aho batez onartzen da.

8. GALDERA ETA ESKEAK.

Itziar Aizpurua Antia Zinegotzi andereak, galdera hau egin zuen:

UEMA-ri ordaintzen zaion kuota nola kalkulatzen da?. Idazkariak erantzuten dio 700 eta 900 tarteko biztanleen herriko kuota dela eta Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko batzarrean erabakitzen dela ordaindu beharreko kuota. Itziar Aizpurua andereak, ondorengoak gehitzen ditu: Aizarnazabalek ez duela onura asko jasotzen UEMAko kide izan da, ematen duen zerbitzua pobria dela eta beste herri batzuk agian gehiago jasoko dutela baino Aizarnazabalek ia

**AIZARNAZABALGO UDALA**

Herriko Plaza, 1
20749 AIZARNAZABAL
(Gipuzkoa)

Zenbakia _____

ezer ere ez, ez txostenik eta ez bestelako dokumenturik eta Yolanda Alkorta Zinegotziari proposatzen dio, UEMako kideei adierazteko esandakoa, bera delako Aizarnazabalgo Udalaren zinegotzi ordezkari UEMAn.

Eta beste gairik ez zegoela ikusi ondoren, Udal Osoko Bilkura hau gaueko bederatzietan amaitu zen eta Idazkaria naizenez ziurtatzen dut Alkatearen On Iritziarekin.

O.I.

Alkatea,



Idazkari-kontuhartzailea,